

2023ko

NEGOZIAKETAREN EBALUAZIOA



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Sarrera
4

Datu Orokorrak
4

Sektoreetako ebaluazioa
7

Lantokietako ebaluazioa
13

Ondorio Orokorrak
16


0. SARRERA

2023a oso urte interesgarria eta bizia izan da negoziazio kolektiboan. Urte luzetako blokeo egoeraren ondoren azken bi hamarkadetako eguneraketa handiena lortu dugu. Eguneraketa hau ez da homogenea izan eta, beti bezala, emakumeak izan dira berriz ere kaltetuenak.

Hitzarmenak eguneratu dira eduki esanguratsuekin, Espainiar Estatuko beste edozein lurraldeetako edukiak gaindituta eta, hala ere, ez gaude erabat gustura, testuinguru ekonomiko eta politikoak anbizio handiagoz aritzea eskatzen baitigu.

Txosten honek gertatutakoaren berri ematen du eta, bereziki, urte honetan ikasitakoa mahai-gaineratu nahi du, ondo egindakoa erreproduzitzeko eta gaizki egindakoa zuzentzeko.

1. DATU OROKORRAK



1. 2023an ELAk sinatutako hitzarmenek 159.346 langileri eman zioten estaldura, horietatik 58.893 emakumeak dira. Aurreko urteetako dinamikekin alderatuta aldaketa nabarmenena sektoreko hitzarmenen hazkundearekin izan dugu: sinatu ditugun 15 sektore hitzarmenetan 104.844 langile ari dira lanean, horietatik 45.282 emakumeak; azken 20 urtetan sinatu dugun sektore hitzarmen kopuru handiena da hau.
2. Oro har, 300.000 langileren hitzarmenak berritu ziren 2023an. 2022an 120.000 langileren hitzarmenak eguneratu zirela kontuan izanik, kopurua izugarria da, 2022koa hirukoiztuta ia. Datu hauetan ezin izan ditugu oraindik gehitu ELAk ordezkartzarik ez duen enpresetan hitzarmena berritu duten langileak.
3. Negoziazio kolektiboaren pizkunde hau ez dago ulertzerik 2022an eta 2023an izan den greben hazkunderik gabe. Patronalak ez du negoziatzeko borondaterik aldatu; soilik greba kopurua hazi denean lortu dugu negoziatzeko borondate hori. Azken 20 urteetan greba kopuruaren eta hitzarmenen eguneratzearen arteko harreman zuzena izan da, eta 2022a azken bi hamarraldietako urterik gatazkatsuena izateak ekarri du 2023an horrenbeste hitzarmen berritu ahal izatea.



4. Hitzarmenen eguneraketan arrakala nabarmena dago gizon eta emakumeen artean: hitzarmena eguneratu duten langileen herena soilik da emakumea. Kopuru horretan eragin handia du 2023an Bizkaiko eta Gipuzkoako Metaleko langileen hitzarmenak berritu izanak (bi horiek dira langile kopuru handiena duten sektore hitzarmenak, eta biak zeharo maskulinizatuta daude). Hala ere, Metalen eragina kontuan harturik ere,

oraindik ere hainbat sektore feminizatueta hitzarmenak eguneratzea falta da, eta hitzarmenik ez duten langileen artean gehiago nabarmena emakumeak dira (etxeko langileak eta klinika txikietan lan egiten duten pertsonak).

5. Genero arrakala orokorra egon arren, ELA izan da hitzarmenak eguneratzerakoan emakume proportzio handiena babestu duen sindikatua, ondoren aztertuko dugun moduan. Hala ere, ez gaude gustura eta hau erronka gisa hartu behar dugu. Bereziki aztertu behar dugu hainbat sektore feminizaturen egoera, lantoki txiki eta barreiatuak dituztenak, mobilizazio eta grebak egiteko sektore zailak direnak eta, ondorioz, hitzarmenak eduki egokiekin eguneratzeko presioa eragiteko zailtasun handikoak.
6. Guztira 39 hitzarmen sektorial sinatu dira HEHan (bukaeran zerrendatuta azaltzen dira); ELAk horietako 15 sinatu ditu, eta, era berean, ELAk lantokiko edo enpresako beste 171 akordio sinatu ditu. 2022an ELAk sinatutako enpresa hitzarmenek estaldura gehiago eskaini zuten sektoreko hitzarmenek baino. 2023an sektoreko hitzarmen bitartez langile kopuru bikoitzaren estaldura lortu dugu.
7. Hitzarmena eguneratu gabe daukan esparru nagusia administrazio publikoa da; 180.000 langile daude EAEn eta Nafarroan beren lan baldintzak azken 15 urteetan adostu gabe. Administrazioak dira patronalik autoritarioenak, bestek beste dekretu bidez lan baldintzak indarrez inposatzeko legezko aukera dutelako, eta aukera hori sistematikoki baliatzen dutelako. Hala ere, 2023an, 2010etik hona lehen aldiz, atea ireki da Espainiako aurrekontuetatik kanpo Hego Euskal Herrian soldata igoera propioak eta enplegu politika propioa izan dadin. EAJk PSOErekin adostutakoaren arabera bitariko batzorde bana antolatuko da EAE eta Nafarroako gobernuen eta Espainiako gobernuaren artean, soldata igoera eta birjartze tasa adosteko. ELAk erabakiak hemengo negoziazio mahaietan adostea aldarrikatzen jarraitzen du, baina 2010etik hona lehen aldiz ireki da enplegu publiko politikak Espainiako aurrekontuen parametro estuetatik kanpo adosteko aukera. Aldaketa hau EAeko sektore publikoan deitutako bi greben ondorio da. ELarentzat ulergaitza da Nafarroan LABek grebak deitzeari ezarritako betoa, egoera bera pairatzen denean bi erkidegoetan.

LABURPENA	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIK	196	82	51	24	19	3	25	278*
PROPORTZIOA	%70,5	%29,5	%18,35	%8,63	%6,83	%1,08		
DEITUTAKO GREBA EGUNAK	7743	1092	806	333	281	8	442	9614*
PROPORTZIOA	%80,54	%11,36	%8,38	%3,46	%2,92	%0,08	%4,6	
GREBA	39	9	5	3	1	0	0	52

MUGAGABEAK								
GREBA FEMINISTAK	41	19	17	4	3	1	5	60

Iturria: Eusko Jaurlaritza *Enpresa edo sektore batean hainbat sindikatu izan daitezke greben deitzaileak

8. laz genioen KPI altuek zaildu egin zutela hitzarmenak eguneratzea, patronalak ez zuelako eros-ahalmena mantentzea onartu nahi. KPI altuek, baina, langileen artean beren pobretzearen jabetzea ere ekarri zuten, beren haserrea piztearekin batera, eta horregatik 2022an izan genuen azken hamarkadako grebalari kopuru handiena. Greba horien ondorioz lortu dugu hitzarmenen eguneratzea.
9. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2023an ELA izan zen greba kopuru handiengan parte hartu zuen sindikatua, greben %70ean hain zuzen. Deitutako greben %70tan ELA deitzailea izan zen, baina deitutako greba egunen %80an izan zen deitzailea, hau da, greba luzeetan ELAk beste sindikatuak baino parte-hartze askoz handiagoa du. Esaterako, LABek deitutako greben ia %30ean parte-hartu zuen, baina soilik greba egunen %11an; hots, LABek greba laburrak bakarrik egiten ditu, eta patronalak proposamen egokirik egin ezean ez die greba luzeei eusten. Patronalak negoziaketa blokeatzen duenean greba gaitasuna mantentzea ezinbestekoa da. ELAk Greba Kutxa indartsua izatea ezinbestekoa da grebei eutsi ahal izateko; horregatik erabaki dugu berriro ere Greba Kutxa indartzea eta 2024an grebalariek hileko jasotzen duten oinarrizko kalteordaina 1.389,15 €raino handitzea. ELAk du soilik halako borrokarako tresna indartsu bat eta Kutxa indartsu hau izatea borrokarako sindikatuak egindako hautuarekin bat egiten du.
10. Era berean, emakume kopurua bereziki altua zen 60 greba deialdietatik 41etan ELA deitzailea izan zen. Hau da, ELAk egiten du lan mundutik borroka feministetarako ekarpen nagusia.

2. SEKTOREETAKO EBALUAZIOA

2.1. Sinatutako hitzarmenak

	HITZARMEN KOPURUA	LANGILE KOPURUA	EMAKUME PROPORZIOA
--	--------------------------	------------------------	---------------------------


ARABA	6	9949	%49,91
BIZKAIA	7	71123	%34,92
GIPUZKOA	12	89641	%34,11
AUTONOMIKOA	1	540	%44,44
GUZTIRA EAE	26	164846	%36,78
NAFARROA	13	82350	%27,47
HEH	39	240810	%34,16

	HITZARMEN KOPURUA	LANGILE KOPURUA	EMAKUME PROPORZIOA
ELA	15	104844	%43,19
LAB	15	85194	%37,97
CCOO	29	179880	%33,76
UGT	31	228607	%34

1. 2023an sektore hitzarmenen negoziaketa izugarri bizkortu da, 2022an 21 hitzarmen sinatu baziren, 2023an 39 izan dira. Gainera, hitzarmen batzuk urte luzez berritu gabeak ziren (Gipuzkoako ostalaritza eta garbikuntza, edo Bizkaiko ehungintza eta merkataritza orokorra, esaterako).
2. ELAk azken hamarkadako sektore hitzarmen kopuru handiena sinatu du, hain zuzen 15 hitzarmen, 104.844 langilerentzat. Orokorrean sektore maskulinizatuetak hitzarmenak gehiago berritu diren arren, ELAren ekimenak hobeki erantzun die emakumeen beharrei, batez beste emakumeen sektoreetan beste sindikatuek baino eragin handiagoa izan baitu.
3. CCOOk eta UGTk sinatu zitzaizkien ia hitzarmen guztiak sinatu dituzte, berriro ere eduki okerragoak ontzat eman dituzte eta gatazkak desaktibatu dituzte oinarrizko aldarrikapenak lortu ez dituztenean ere. 2023an bereziki salatu behar dugu CCOOren eta UGTren jarrera antidemokratikoa sektore batzuetan, langileek ordezkariak nahikorik eman ez dieten arren 4 hitzarmen sektorial gutxiengoan sinatu baitituzte (Nafarroako Kirol Kudeaketa, Arabako etxez-etxe laguntza, Arabako metalaren merkataritza eta Bizkaiko petrolioaren banaketa). Sinadura hauek langileen nahiari ez erantzuteaz gain, lan baldintza okerragoak inposatzeko baliatzen ditu patronalak, sindikatu merkeenarekin adosten baitu gehiengoarekin adostu ezin duena, bide batez izan daitezkeen mobilizazio eta grebak bertan behera uzteko.


4. Jarrera antidemokratikoekin jarraituz, LABek Gipuzkoako Kirol Kudeaketan hondartzetako sorosleak hitzarmenetik kanporatzea adostu zuen patronalarekin, ELAk zuen ordezkartza murrizteko (sorosleak kontuan izanik gehiengo absolutua luke ELAk), eta horrela hitzarmen merke bat adostu ahal izateko.
5. Sinatutako 39 hitzarmenetatik 10 industria alorrekoak izan dira, 5 sektore soziosanitarioetakoak eta beste 23 zerbitzu pribatuetakoak, eta lehen aldiz arte eszenikoetako hitzarmena sinatu zen. Hala ere, hitzarmena jaso duten langile gehienak industria alorrekoak izan dira (Bizkaiko eta Gipuzkoako Metalak adostu baitira) eta, horregatik, gizonezko gehiagorengan izan dute eragina emakumeengan baino. Hori esanik, 2023an zerbitzu pribatuetan urte luzez atzeratutako hitzarmenak eguneratu izana meritu handikoa da, baita zaintza esparruetako hitzarmenak eguneratzea ere. Urteetan sinatu gabeko hitzarmenak eduki egokiekin eguneratzea zaila gertatu ohi da, patronalak urte horietako soldata izozketa xantaia moduan erabiltzen baitu.
6. Hobekuntzak izan arren, emakumeen hitzarmenen estaldura baxuagoak kezkatu behar gaitu, batetik hitzarmenak atzeratzen zaizkigulako, horrek ondoren hitzarmenak eduki egokiekin eguneratzeko dakartzan zailtasunekin, eta, bestetik, inongo hitzarmenik gabe dauden bi langile kolektibo nagusiak (etxeko langileak eta klinika txikietako langileak) emakumeak nagusi diren sektoreetakoak direlako. Sektore horien dinamizazio eta grebarako gaitasuna landu behar dugu.
7. 2023an negoziatu diren sektoreko hitzarmenen artean ELArentzat deigarria da Osakidetzako garbikuntzako hitzarmenarekin gertatutakoa. LABek, CCOOk, ESK-k eta UGTk 2023ko uztailaren 12an akordioa sinatu zuten, baina hitzarmen hori oraindik ez da argitaratu. Sinadura horrekin gatazka eta greba bertan behera utzi zituzten, eta urte erdi pasa ondoren oraindik ez dago langileentzat aplikagarri den hitzarmenik.

2.2. Soldata igoera



SOLDATA IGOERAK SINATZAILEEN ARABERA

1. Soldata igoeretan zuzeneko harremana dago ELAren parte-hartzearen eta soldata igoera altuenen artean. EAEn batez besteko soldata igoera %5,76koa izan zen sektore hitzarmenetan 2023an, baina diferentzia izugarria dago Arabako %3,77 eta Gipuzkoako %6,33aren artean. Nafarroan igoera %4,57koa izan zen.
2. Genero irakurketa eginez gero, diferentzia hori are nabarmenagoa da. Emakumeek izandako batez besteko soldata igoera %6,75ekoa izan zen, baina Araban %3,97koa zen bitartean, Gipuzkoan %8,73koa izan zen.
3. Ezberdintasun horien jatorrian sindikatu bakoitzak eragiteko duen gaitasuna dago. ELAk hitzarmen kopuru handiena Gipuzkoan sinatu du, 8 hitzarmen hain zuzen ere, eta horrek ekarri ditu Gipuzkoan azaldu ditugun emaitza horiek. ELAk sinatutako hitzarmenetan batez besteko soldata igoera %6,50ekoa izan zen eta emakumeena %7,84. Hau da, soldata igoeretan aztertu ditugun bi parametro nagusietan ELAk nabarmen gorantza bultzatzen ditu emaitza orokorrak. ELAk sinatu ez dituen hitzarmenetan soldata igoera %4,17koa izan zen, eta emakumeena soilik %4,30koa. ELAren estrategiak eragiten ditu soldata igoera handienak, bereziki sektore feminizatuetan, hau da, oinarrizko soldata baxuagoak dauzkaten sektoreetan.




4. 2023rako ELAk gutxieneko hileko 1.300 euroko soldata gaintitzea jarri zion erronka gisa bere buruari. Esan dezakegu erronka hori gaintitu dugula, eta 1.400 euroko ordainsaria lortzea izan behar duela ELArentzat 2024rako helburua. Era berean, honek erakusten du

Estatuan adostu den gutxieneko soldata Hego Euskal Herrian ez dela baliozkoa, hemen beste parametro batzuetan adosten baitira hitzarmenak. Orokorrean, sinatu diren 39 hitzarmenetan soilik Arabako elikagaien merkataritzan, Gipuzkoako gozogintzan, Nafarroako abelzaintzaren merkataritzan eta Nafarroako aisialdian adostu dira 1.300 eurotik beherako soldatak.

- Horrekin batera, hitzarmenen indarraldian zehar KPItik gorako soldata igoerak adostea ia erabat lortu du ELAk. Sinatu dituen 15 hitzarmenetatik soilik 2tan KPI adineko igoera ez dago erabat bermatuta. ELAk sinatu ez dituen 24 hitzarmenen artean, soilik 10 hitzarmenetan jaso da klausula bat eros-ahalmena erabat bermatzen duena.
- Azkenik, ELA soldata arrakalaren aurka ari da lanean hitzarmenen negoziaketan eta, horregatik, soldata igoera gehigarriak bilatzen ditu sektore feminizatueta, bereziki soldata oso baxuak dauzkatenetan. Bereziki azpimarratu beharrekoa da Bizkaiko zahar-egoitzetan hitzarmenaren indarraldian zehar KPItik gorako 4 puntuko igoera adostu izana.

2.3. Bestelako edukiak



- Soldata igoerarekin bezala, hitzarmenen negoziaketan oso garrantzitsuak diren beste edukiak aztertzerakoan ondorio bertsua atera dezakegu: ELAk sinatzen dituen hitzarmenetan eduki hobeak lortzen dira.
- ELAk sinatutako hitzarmen guztietan 2012ko lan erreformak enpresariei alde bakarrez hitzarmenak ez aplikatzeko ematen zizkien tresnak bertan behera geratu dira. ELAk

sinatu ez dituen hitzarmenetan berme hau erabat marjinala da. ELArentzat elementu hau ezinbestekoa da, batetik, ez duelako ontzat ematen azken lan erreformek enpresariei emandako boterea eta, bestetik, hitzarmen bat sinatzeko beronen aplikazioa ezinbesteko elementua delako.

3. Lanaldiaren murrizketan, 2022ko negoziazioarekin alderatuz, aurrerapausoa eman du ELAk, eta sinatutako 15 hitzarmenetatik 8tan lanaldiaren murrizketa aurreikusi da. ELAk sinatu ez dituen 24 hitzarmenetatik 3tan baino ez da jaso lanaldi murrizketa.

4. Bestalde, ELA prekarietatearen aurkako kanpaina betean ari da eta ezinbesteko bilakatu nahi du bere hitzarmenetan gutxieneko soldata 1.400 eurotik gorakoa izatea, borondatezkoa ez den lanaldi partziala murrizteko neurriak jasotzea, behin-behinekotasuna bere forma guztietan desagertzea eta lan osasuna bermatzeko aldarrikapenei erantzuna ematea. Bada, ELAk sinatutako 15 hitzarmenetatik 9tan horrelako neurriak jaso dira. Hau da, ELAk sinatutako hitzarmenen %60an prekarietatea murrizteko neurriak hartu dira, ELAk sinatu ez dituenetan proportzioa %38,40koa zen bitartean.

5. Azkenik, 2023ko arrakasten artean ELAk beste bi azpimarratu nahi ditu:
 1. Euskara Planak: Lehen aldiz bi sektoreko hitzarmenetan jaso da langileen batzordeak eskatzekotan Euskara Planak negoziatzeko beharra, Gipuzkoako metalean eta Bizkaiko zahar-egoitzetan. Harrigarria da horrelako lorpen bat ELAk bultzatu izana eta UGTekin bakarrik sinatu izana, bestela euskaldunon hizkuntza eskubideen urraketak defendatzen dituen sindikatuak.
 2. Trans pertsonentzako eskubideak: Gipuzkoako metalean adostu da trans pertsonen enpresari komunikatzen dioten momentutik nahi duten izenarekin deituak izango direla enpresan.
 3. Subrogazioa: Gipuzkoako metalean azpikontrata guztietako langileen subrogazioa bermatzen zaie.

2.4. Gatazka sektorialak

EAE / CAPV	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIAK	3	3	3	1	2	1	1	4*
PROPORTZIOA	%75	%75	%75	%25	%50	%25	%25	
DEITUTAKO	86	57	57	8	49	8	2	133*

GREBA EGUNAK								
PROPORTZIOA	%64,66	%42,86	%42,86	%6,02	%36,84	%6,02	%1,5	

*Sektore batean hainbat sindikatuk dei dezakete grebara

ARABA	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIAK	4	2	2	2	1	0	1	4*
PROPORTZIOA	%100	%50	%50	%50	%25	%0	%75	
DEITUTAKO GREBA EGUNAK	12	8	8	8	2	0	1	12*
PROPORTZIOA	%100	%66,66	%66,66	%66,66	%16,66	%0	%8,33	

*Sektore batean hainbat sindikatuk dei dezakete grebara

GIPUZKOA	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIAK	5	1	1	1	0	0	0	5*
PROPORTZIOA	%100	%20	%20	%20	%0	%0	%0	
DEITUTAKO GREBA EGUNAK	50	5	5	5	0	0	0	50*
PROPORTZIOA	%100	%10	%10	%10	%0	%0	%0	

*Sektore batean hainbat sindikatuk dei dezakete grebara

BIZKAIA	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIAK	10	7	7	3	3	0	0	17*
PROPORTZIOA	%58,82	%41,18	%41,18	%17,65	%17,65	%0	%0	
DEITUTAKO GREBA EGUNAK	151	48	53	14	27	0	0	203*
PROPORTZIOA	%74,38	%23,65	%26,11	%6,9	%13,3	%5,7	%1,27	

*Sektore batean hainbat sindikatuk dei dezakete grebara

- 2023an ere ez da grebarik izan ELArik gabe sektore bakar batean ere. Kasu batzuetan hainbat deialdi izan dira eta, normalean, halakoetan ELAk berak bakarrik deitu ditu


grebak eta LABek CCOOk, UGTk eta kasu batzuetan ESK sindikatuak deitu dituzte grebak bestetik.

2. Hainbat sektoretan grebak izan dira ELAk bakarrik deituta, beste sindikatuek grebaren aurka egiten zuten bitartean. Gipuzkoako egoera da deigarriena, 2023an deitutako 5 greba sektorialetatik 4tan ELAk bakarrik deitu ditu grebak. Bereziki deigarria da hainbat sindikatuk grebarik ez deitzea hitzarmen batzuetan eta ondoren hitzarmenik ez sinatzea, edukiak nahikoak ez zirela iritzita (aurretik erakutsi dugu ELAk sinatutako hitzarmenen eta beste sindikatuek sinatutakoen artean edukien kalitatean zein den aldea). ELAren iritziz hainbat sektoretan beste sindikatuen estrategia ez da edukien edo patronalaren jarreraren arabera erabakitzen, ELArekiko ezberdintasunak markatzeko baizik, eta hori argi ikusi da grebak deitzerakoan ELA bakarrik utzi eta ondoren sinatzerakoan ELAren aurkako jarrera izan den kasuetan.

3. LANTOKIETAKO EBALUAZIOA

1. 2023an ELAk 740 enpresa hitzarmenen negoziaketan parte hartu du. 2022ko negoziaketa kopuruarekiko hazkunde nabarmena izan dugu, %36,35eko hazkundera hain zuzen. Negoziaketa kopurua nabarmen hazi da, besteak beste 2022an ixterik izan ez genuen negoziaketa kopuru handi bat 2023ra atzeratu zitzaigulako, ia 220 hitzarmen geratu baitziren 2022an adostu gabe. Ondoren ikusiko dugun bezala, enpresa hitzarmenen negoziaketan dugun arazo nagusietako bat atzerapen hau da.
2. Negoziaketa hazkundera eskualde gehienetan eman da, hazkunde nabarmenena Gasteizen, Urola/Kostan, Deban eta Nafarroan izan arren.

3.1. Sinatutako akordioak




1. Negoziatu beharreko 740 hitzarmenetatik ELAk 171 sinatu ditu, 110 industriako enpresetan, 29 zerbitzu pribatuetan eta 33 zerbitzu publikoetan. Eta ELAk ordezkari izanik, ELAren sinadurarik gabe beste 28 hitzarmen sinatu ziren.
2. Sinatu ditugun hitzarmenak horrenbeste izan ez arren, eragindako langileak asko dira. ELAk ordezkari duen enpresetako 51.279 langilek eguneratu zuten hitzarmena 2023an. Ondorioa argia da: bereziki enpresa handietan sinatu genituen hitzarmenak eta txikietako negoziaketak atzeratu dira. Lan Harremanen Kontseiluaren arabera 2023ko urrian 66.000 bat langile zeuden beren enpresa hitzarmena berritzeko zani.
3. Enpresa hitzarmen bidez itxitako langileen herena besterik ez dira emakumeak. Enpresa hitzarmenak bereziki industria alorrean negoziatzen direla kontuan izanik hau naturala izan daiteke, baina sektoreko hitzarmenetan ere ikusi dugu gizonezko gehiagok lortu dutela beren hitzarmena eguneratzea.

3.2. Adostutako edukiak

1. Modu orokorrean, ELAk hitzarmen baten helburu gisa KPItik gorako soldata iguera adostu behar da, aplikazio bermeak izan behar dira eta prekarietatearen aurkako neurriak jaso behar dira.

- 2023an sinatu genituen hitzarmenen erdian neurri horiek guztiak bermatuta geratu ziren. Hala ere, ELAk sinatutako akordioen bidez, langileen % 60,62ri bermatu zitzaizkien eduki guztiak, hau da, gutxienekoak hobeto bermatzen ditugu enpresa handietan txikietan baino.
- Gutxienekoak bermatzerakoan eros-ahalmena erabat bermatzea eta, bereziki, prekarietatearen aurkako neurri esanguratsuak adostea dira zailtasun handienak. KPI altuak negoziaketak erabat soldaten aferera lerratzea ekarri du, eta hitzarmenen prestaketan langileekin bestelako helburu batzuk behar bezala landu ezean, negoziaketa abiatzerakoan enpresek soldata igoera garrantzitsuak proposatzen dituenean oso zaila izaten ari da langileak beste helburu batzuekin lotzea eta, ondorioz, gatazkak martxan jartzeko aukera izatea.

3.4. Gatazkak lantokietan



- Gure barne erregistroaren arabera greba kopurua %17,69 jaitsi da 2023an. 2022a urte berezia izan zen eta sektore mailako grebek enpresetan ere grebak deitzea lagundu zion, greba giro orokortua baitzegoen. 2022koa urte berezia izan bazen ere, atzeratuta dagoen negoziaketa kopurua kontuan izanik, enpresa mailako greba gehiago izatea behar genuen.

2. Greben arrazoiak ez dira asko aldatu, baina poztekoa da prekarietatearen aurkako grebek pisua irabazi izana, horri begirako lan-plana martxan dugulako.
3. Sektoreko hitzarmenekin bezala, enpresa mailan ere Eusko Jaurlaritzaren greba datuak aztertu ditu ELAk. Kasu honetan ere ondorioa oso argia da: ELA da diferentzia handiarekin greba gehien eta greba egun handiena deitzen duen sindikatua lurralde guztietan. Beste sindikatuekiko diferentzia bereziki nabarmena da Gipuzkoan, ELAk LABek baino hiru aldiz greba gehiago deitu zuen eta LABek baino bost aldiz greba egun gehiago egin zituen. Greba ELAren negoziaketaren erdigunean dago, eta horregatik dauka beste sindikatuek ez daukaten Greba Kutxa.

ARABA	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIAK	34	13	6	3	5	0	3	49*
PROPORTZIOA	%69,39	%26,53	%12,24	%6,12	%10,2	%0	%6,12	
DEITUTAKO GREBA EGUNAK	484	191	48	53	69	0	67	792*
PROPORTZIOA	%61,11	%24,12	%6,06	%6,69	%8,71	%0	%8,46	

*Enpresa batean hainbat sindikatuk dei dezakete grebara

GIPUZKOA	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIAK	43	14	4	1	2	0	3	58*
PROPORTZIOA	%74,14	%24,14	%6,9	%1,72	%3,45	%0	%5,14	
DEITUTAKO GREBA EGUNAK	1719	347	39	1	77	0	11	2122*
PROPORTZIOA	%81,01	%16,35	%1,84	%0,05	%3,63	%0	%0,52	

*Enpresa batean hainbat sindikatuk dei dezakete grebara

BIZKAIA	ELA	LAB	CCOO	UGT	ESK	STEILAS	BESTEAK	GUZTIRA
GREBA DEIALDIAK	97	43	30	13	6	2	18	141*
PROPORTZIOA	%68,79	%30,5	%21,28	%9,22	%4,26	%0	%12,77	
DEITUTAKO GREBA EGUNAK	5263	436	596	244	57	43	361	6302*
PROPORTZIOA	%83,51	%6,92	%9,46	%3,87	%0,9	%0	%7,73	

*Enpresa batean hainbat sindikatuk dei dezakete grebara

4. ONDORIO OROKORRAK

- 2023a aldaketa urtea izan da, bereziki sektore mailako negoziaketa piztu delako eta urte luzez atzeratutako hainbat hitzarmen eguneratu direlako. Hala ere, oraindik ere negoziaketaren parte handi batek blokeatuta jarraitzen du, bereziki sektore feminizatu batzuetan. Era berean, ELA kezkak dago hitzarmen kolektiboen inongo estaldurarik ez duten langileen kolektibo nagusiak oso feminizatutakoak direlako, etxeko langileak eta klinika txikietako langileak, hain zuzen.
- 2023ko negoziazio kolektiboaren aldaketa oso lotuta egon da 2022an eta 2023an izan den greba dinamikarekin. Bi urte hauek izan dira azken bi hamarkadetako gatazkatsuenak eta greba horiei esker izan da posible hitzarmenak eguneratzea. 2022an 120.000 langileren hitzarmenak eguneratu baziren, 2023an 300.000 langiletik gora dira hitzarmena eguneratuta ikusi dutenak.
- ELAk sektore mailako 15 hitzarmen sinatu ditu eta horiek dira, hain zuzen, eduki onenak dauzkatena. ELAk sinatutako hitzarmenetan batez besteko soldata igoera 2,33 puntu altuagoa izan da, emakumeen kasuan 3,54 puntu altuagoa. Eta ELAk sinatutako hitzarmen sektorial guztietan aplikaziorako bermeak hitzartu dira, %87an eros-ahalmena erabat bermatu da KPIa hurrengo urteetan asko igo arren eta hitzarmenen %60an prekaritatea murrizteko neurri eraginkorrak adostu dira. Parametro guztietan ELAk sinatutako hitzarmenak nabarmen hobeak izan dira.
- Sektore mailako hobekuntza hau posible izan da ELA izan delako, era berean, greba kopuru handiena eta greba luzeenak deitzeko prest izan den sindikatua, kasu askotan bakarrik, bereziki Gipuzkoan.

5. Enpresa mailan ELAk 171 hitzarmen sinatu zituen 2023an, 40.891 langilerentzat (13.611 emakume). Horietako erdiek erabat bermatuta zuten eros-ahalmena mantentzea, prekarietateren aurkako neurriak jasotzea eta hitzarmenaren aplikazioa bermatzea. Beste hitzarmenetan hobekuntza partzialak izan dira, baina ez gustatuko litzaizkiguketenak bestekoak. Kopuru hau beste sindikatuek lortutakoa baino hobea den arren, hobetu beharrekoa da.
6. Lanaldi murrizketa eta soldata arrakala agendan sartzen hastea lortu dugu, baina kasu honetan ere urrun gaude egon beharko genukeen puntutik.

2023AN ARGITARATU DIREN EDO 2023AN SINATU DIREN HITZARMENAK

LURRALDEA	IZENA	ELA ORDEZ	SINATZAILEAK				LANGILE KOPURUA	EMAKUMEAK	GREBA EGINA?	2023 IGOERA
			ELA	LAB	CCOO	UGT				
ARABA	Esku-hartze soziala	%54	BAI	BAI	BAI	EZ	982	797	BAI	4,5
ARABA	Ez-gaitasuna duten pertsonentzako egoitzak	%59	BAI	BAI	BAI	EZ	400	300	EZ	4,5
ARABA	Ardoaren industria eta merkataritza	%10	EZ	BAI	BAI	BAI	2000	200	EZ	2
ARABA	Etxez-etxeko laguntza	%46	EZ	EZ	BAI	EZ	1100	1000	EZ	1
ARABA	Metalaren merkataritza	%50	EZ	EZ	EZ	BAI	3300	1300	EZ	4
ARABA	Elikagaien merkataritza	%30	EZ	EZ	BAI	BAI	2167	1369	EZ	6

LURRALDEA	IZENA	ELA ORDEZ	SINATZAILEAK				LANGILE KOPURUA	EMAKUMEAK	GREBA EGINA?	2023 IGOERA
			ELA	LAB	CCOO	UGT				
BIZKAIA	Merkataritza orokorra	%60	BAI	BAI	BAI	BAI	6726	4708	BAI	8
BIZKAIA	Ehungintzaren merkataritza	%70	BAI	BAI	BAI	BAI	5505	4679	BAI	12
BIZKAIA	Zaharren egoitzak	%64	BAI	EZ	EZ	BAI	6000	5500	BAI	7,6
BIZKAIA	Etxez-etxeko laguntza	%32	EZ	EZ	BAI	BAI	1300	1290	BAI	2,1
BIZKAIA	Bidaiarien garraioa	%30	EZ	EZ	EZ	BAI	3500	500	EZ	3,3
BIZKAIA	Metala	%40	EZ	BAI	BAI	BAI	42865	7715	BAI	4
BIZKAIA	Petrolioaren banaketa	%25	EZ	EZ	BAI	EZ	750	450	EZ	4

LURRALDEA	IZENA	ELA ORDEZ	SINATZAILEAK				LANGILE KOPURUA	EMAKUMEAK	GREBA EGINA?	2023 IGOERA
			ELA	LAB	CCOO	UGT				
GIPUZKOA	Metala	%47	BAI	EZ	EZ	BAI	48614	8264	EZ	5
GIPUZKOA	Ostalaritza	%65	BAI	BAI	BAI	BAI	18000	9360	EZ	12
GIPUZKOA	Ehungintzaren merkataritza	%60	BAI	BAI	BAI	BAI	2291	2026	BAI	5
GIPUZKOA	Elikaduraren industria eta merkataritza	%30	BAI	EZ	BAI	BAI	5670	3300	EZ	4,9
GIPUZKOA	Transitarioak	%68,75	BAI	BAI	BAI	BAI	465	175	EZ	4
GIPUZKOA	Komisaldegi eta epaitegien garbiketa	%100	BAI	EZ	EZ	EZ	43	40	BAI	0
GIPUZKOA	Kale Garbiketa	%60	BAI	EZ	EZ	BAI	1500	300	EZ	3,5
GIPUZKOA	Garbikuntza	%55	BAI	EZ	EZ	EZ	6908	5283	BAI	5,4
GIPUZKOA	Arte Grafikoak	%42	EZ	BAI	EZ	EZ	1550	550	BAI	4
GIPUZKOA	Gozogintza	%10	EZ	BAI	BAI	BAI	800	480	EZ	5,7
GIPUZKOA	Handizkako arrain salmenta	%20	EZ	BAI	BAI	EZ	470	100	EZ	4
GIPUZKOA	Kirol Kudeaketa	%48	EZ	BAI	BAI	BAI	1400	700	EZ	Igoera atzeratua

LURRALDEA	IZENA	ELA	SINATZAILEAK	LANGILE	EMAKUMEAK	GREBA	2023
-----------	-------	-----	--------------	---------	-----------	-------	------

		ORDEZ	ELA	LAB	CCOO	UGT	KOPURUA		EGINA?	IGOERA
EAE	Arte Eszenikoak	%41	BAI	BAI	BAI	BAI	540	260	EZ	Lehen taulak

LURRALDEA	IZENA	ELA ORDEZ	SINATZAILEAK				LANGILE KOPURUA	EMAKUMEAK	GREBA EGINA?	2023 IGOERA
			ELA	LAB	CCOO	UGT				
NAFARROA	Bidaiarien garraioa	%30	BAI	BAI	BAI	BAI	1200	300	BAI	10
NAFARROA	Kotxeen konponketa	%40	EZ	EZ	BAI	BAI	4500	225	EZ	4
NAFARROA	Bulegoak	%23	EZ	EZ	BAI	BAI	1000	500	BAI	4
NAFARROA	Elikaduraren industria	%32	EZ	EZ	BAI	BAI	1050	350	EZ	3
NAFARROA	Zementuaren deribatuak	%16	EZ	EZ	BAI	BAI	1000	200	EZ	4
NAFARROA	Ostalaritza	%20	EZ	EZ	BAI	BAI	14214	7107	EZ	4
NAFARROA	Metalaren merkataritza	%36	EZ	EZ	BAI	BAI	2500	1000	EZ	5
NAFARROA	Okindegiak	%40	EZ	EZ	BAI	BAI	1200	480	EZ	3
NAFARROA	Eraikuntza	%25	EZ	EZ	BAI	BAI	11800	800	EZ	3
NAFARROA	Abelzaintza merkataritza	%50	EZ	EZ	EZ	BAI	1000	200	EZ	4
NAFARROA	Metala	%30	EZ	EZ	BAI	BAI	34000	9860	EZ	5,7
NAFARROA	Aisialdia	%20	EZ	EZ	BAI	BAI	1000	600	EZ	7
NAFARROA	Kirol Kudeaketa	%30	EZ	EZ	BAI	BAI	1500	1000	BAI	3



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA